DOKUMENTUA / DOCUMENTO: Baldintza teknikoen plegua / Pliego de Prescripciones Técnicas

ESPEDIENTE ZENBAKIA / Nº EXPEDIENTE: **3/2024/KN_P1**

SAILA / DEPARTAMENTO: Informatika eta Komunikazioak

IZENBURUA/ TÍTULO:
Durangoko Udalaren eraikinetarako sarraila elektronikoen hornidura eta instalazioa

[Saltar al texto en castellano]

[Jauzi egin aurkibidera]

1. Testuingurua

Bigarren proiektu hau, bitik bigarrena, Toki Erakundeei eraldaketa digitala eta modernizazioa egiteko ematen zaizkien laguntzen 2022ko deialdira aurkeztua (C11.I3), 4. ildo estrategikoaren barruan dago: Azpiegitura digitalak. TER/836/2022 Aginduaren 5. artikuluan, d) atalean, lerro estrategiko horri buruzkoan (diruz lagun daitezkeen jarduketen 2.3 azpiatala), zerak aurreikusten dira: "*azpiegitura fisikoak eta sarbide digitaleko puntuak, bai eta herritarrei laguntzeko puntuak eta postu digitalak ezartzea ere, zerbitzuen automatizazioa eta arintzea erraztuko dutenak; toki-erakundeak modernizatzen lagunduko duten sistemak ezartzea, langileen sarbidea txartel adimendunen bidez hobetuz; eta eraikinen energia-eraginkortasuna hobetuko duten azpiegiturak ezartzea*".
Udal honen helburu estrategikoak dira, informazio-sistemen modernizazioa, eta baliabide teknologikoen erabileran eguneraketak egin eta hobekuntzak ezartzea. Berrikuntza hau baliabide teknologikoen erabileraren hobetze prozesu honetan kokatuko dugu.

2. Kontratuaren gaia

Bere egoitza, bulego eta gainerako geletarako sarbidea modernizatzeko asmoz, Durangoko Udalak bere eraikinetako barruko eta kanpoko ateetarako sarraila elektronikoen hornidura eta instalazioa kontratatu nahi ditu, eta horrela, proiektu hau Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 168. helburuarekin (169. mugarria) lotu nahi du, hau da, azpiegitura fisiko, logiko eta softwarearen eraldaketa digitala lortzen laguntzekoarekin.
Sarraila elektronikoen sistema gailu irakurgailuetan oinarrituko da. Gailu horiei esker, sarraila elektronikoak ireki ahal izango dira, hurbileko txartelekin, giltzatakoekin eta eskumuturrekoekin, bai eta *Android* eta *IOS* inguruneetarako app mugikor batekin ere. Horiek ateak irekitzeko mekanismoarekin elkarreraginean egongo dira, atea eskuz ireki ahal izateko, sartzeko baimena duen txartel bat aurkeztean.
Sarraila elektronikoak *online* motakoak izango dira, hau da, datu-sarera konektatuta egongo dira, atearen egoera monitorizatzeko eta une oro ate horretatik zein pertsona sartzen diren ikusteko, bai eta sartzeko baimenak berehala eguneratzeko ere, horretarako SALTO SYSTEMS fabrikatzailearen *ProAccess SPACE* softwarea erabiliz.
Europako Batzordearen Kontratuen Hiztegi Komunaren (CPV) nomenklaturari dagokion kodifikazioa hau da:

- 44521120-5 – Segurtasun-sarraila elektronikoak.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

3. Egungo egoera

Gaur egun, Durangoko Udalak ezkutu elektronikodun ateen sistema partziala du, eta horrek hainbat eraikinetako 427 ateri eragiten die; guztira, 1.338 giltza daude langileen eta erabiltzaileen artean banatuta. Proiektu honen bidez, *SALTO Space BLUEnet Wireless* sistema ahalik eta ate gehienetara zabaldu nahi da, bai eta *iButton* sistema duten aurreko instalazioak migratzea sistema berrira ere.

4. Proiektuaren deskribapena eta irismena

Durangoko Udalak 85 eraikin ditu guztira, ateetan ezkutu elektronikoak izan ditzaketenak. Proiektu honetan, sarraila mota horiek eraikin hauetan instalatzea aurreikusten da:

ERABILPENA	ERAIKINA
Administratiboa	Udaletxea
Kulturala	San Agustin Kultur Gunea
	Larriztorre
	Etxezarreta Museoa
Kirolak	Arripausueta Kirol Gunea
	Landako I
	Landako II
	Futbol Zelaia
	Tabira kirol gunea
	San Faustoko frontoia
Hezkuntza	Euskaltegia
	KZ gunea
Ondare artistikoa	Kurutze Santu Museoa
Beste batzuk	Brigadako biltegia
	Landaederra
	Matxinestarta lokala
	Berbagunea
	Mercado de Abastos
	Cárcavas
	Deposito Agua
	Laubideta

Enpresa bat hautatu nahi da, Durangoko Udalaren eraikinetako barruko eta kanpoko ateetan baldintza teknikoen agiri honetan eskatutako gutxieneko zehaztapen teknikoak betetzen dituzten sarraila elektronikoak jartzeko.

Gaur egungo sarraila elektronikoen sistema Durangoko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako hainbat eraikinetan instalatuta dago, eta SALTO sistemaren egiturari dagozkio. Sistema hori Pro Access SQL edo HAMS SQL azken belaunaldiko softwarean integratuta dago, eta 2,4 GHz-ko irrati-frekuentzia bidezko komunikazioa erabiltzen du. SALTOko XS4 belaunaldi berriko wireless, 128 biteko AES algoritmo baten bidez enkriptatuta, IEEE 802.15.4 estandarrean oinarrituta.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

Europar Batasaunak finantzatua NextGenerationEU
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO DE POLITICA TERRITORIAL Y MEMORIA DEMOCRÁTICA MINISTERIO PARA LA TRANSFORMACIÓN DIGITAL Y DE LA FUNCIÓN PÚBLICA SECRETARÍA DE ESTADO DE FUNCIÓN PÚBLICA

Lehen adierazitako eraikinetan ezkutu elektronikoak zabaltzea da proiektu honen zeregina. Enpresa esleipendunak *Partner* homologatuaren akreditazioa aurkeztu beharko du, SALTO fabrikatzaileak abalatua, Durangoko Udalerako eskaintzen diren SALTO sistemak eta softwarea hornitzeko, instalatzeko, konfiguratzeko eta zerbitzuan behar bezala jartzeko gaitasuna bermatzen duena.
Hornitu beharreko sarraila elektronikoen ekipamendua guztiz bateragarria izan beharko da maila funtzionalean, operatiboan eta kudeaketa-mailan Durangoko Udalean dagoen sarbideak kontrolatzeko aplikazioarekin, eta modu zentralizatuan kudeatu eta kontrolatu ahal izango da, IP datu-sarearen bidez, SALTO SYSTEMS enpresaren *Salto Pro Access Space SQL* aplikazioaren bidez, eta guztiz bateragarriak izango dira SALTO sarbideak kontrolatzeko XS4 plataformarekin, sarrailen artean (SVN) sare birtual bat sortuz, hainbat zabalera motarekin, XS4-40 modelotik XS4-67 modeloraino.
Sarraila elektronikoen sistema ateak irekitzeko mekanismora egokituko diren gailu irakurgailuetan oinarrituko da, atea eskuz ireki ahal izateko, sistemarekin homologatutako gailu batzuk aurkezten direnean, sarbide-baimen baimenduarekin.
Hauek dira erabili beharreko gutxieneko gailuak, sistemak behar bezala homologatuta:

- Hurbiltasun-txartela.
- Giltzatakoa.
- Silikonazko eskumuturrekoa.
- Pegatina.
- App-a mugikorrean (Justin Mobile).

Instalatu beharreko sarraila elektronikoak era guztietako ateetan (egurrezkoak, kristalezkoak, metalezkoak, etab.) instalatzeko diseinatuta egon behar dira. Ate horiek hestebete-sarrailak izan behar dituzte, Europako profilekoak, metalezko profilekoak, Eskandinaviako profilekoak, ANSI motakoak, eta baita moldagarritasun-araudia (DDA) betetzen duten pikostre tubular batzuk ere.
Eraikinetan ezarri beharreko sarraila elektronikoen instalazioek behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren materialak eta eskulana barne hartuko dituzte, eta beste jarduera osagarri batzuetarako behar diren gremioekin bitartekari-lanak egin beharko dituzte, hala nola ateen mekanizazioa, ateak ireki eta ixteko mekanismoen instalazioa, seinaleztapen-kableatua, elikadura elektrikoa eta sistemak behar bezala funtzionatzeko behar diren elementu guztiak.
Taula honetan bertan zehazten dira Durangoko Udalaren eraikinetan hornitu eta instalatu beharreko elementuen kopurua eta gutxi gorabeherako ezaugarriak:

ELEMENTUA	KOPURUA
Mifare ezkutu elektronikoa	185
Mifare ezkutu elektronikoaren osagarria	24
SALTO NEO zilindroa	51
POE Gateway RF3 EU	59
SALTO Wireless BLUEnet/SPACE-OPT-0033 lizentzia	201
WR4000 Mifare BLE	35
Unit 42XX EU plug kontrola	30
Bonbilla bertikaleko beirazko atearen burdineria	2
Plaka-parea eta beste osagarri eta kit batzuk	90

Ez da baloratuko 4. atal honetan zehaztutako preskripzio teknikoekin bat ez datozen ekipoak eskaintzen dituzten proposamenen eskaintza, eta horrela, enpresa lizitatzailea lizitaziotik kanpo geratuko da.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus
Europar Batasunak finantzatua NextGenerationEU
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO DE POLITICA TERRITORIAL Y MEMORIA DEMOCRÁTICA MINISTERIO PARA LA TRANSFORMACIÓN DIGITAL Y DE LA FUNCIÓN PÚBLICA SECRETARÍA DE ESTADO DE FUNCIÓN PÚBLICA

5. Kontratuaren beste betekizun batzuk

5.1. Hizkuntza-betekizunak

Kontratu hau hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidearen mende dago. Araubide hori Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak ezartzen du 6. artikuluan, eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legeak arautzen du, bai eta hura garatzen duen araudiak ere, besteak beste, Durangoko Udalaren 2010eko azaroaren 9ko euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko udal-araudiak, eta bat dator Udalak bere hizkuntza-jarduera arautzeko dituen planekin, hala nola Durangoko Udalaren Euskararen erabilera normalizatzeko 2019-2022 planarekin eta Euskara sustatzeko eta erabiltzeko 2019-2022 ekintza planarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritakoa betez, baldintza-agiri hauetan jasotzen diren hizkuntza-betekizunak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren funtsezko betebeharra dira, eta horiek ez betetzeak gainerako baldintzen ondorio berberak izan ditzake, hau da, zehapen-sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

Beraz, kontratu honek nahitaez bete behar duenez hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea, plataformak nahitaez ezarri beharko ditu euskara eta gaztelania modulu guztietan, laguntza-testuetan eta beste interfazeetan.

Durangoko Udalaren eta haren Erakunde Autonomoen administrazio-kontratuetan hizkuntza-betekizunak txertatzeari buruzko Erabakiak hala aginduta, testu hau sartu da: Enpresa esleipendunak bi hizkuntza ofizialetan emango ditu kontratuaren xede diren ondasun eta produktuen erabilera-eskuliburuak edo dokumentazioa, softwareen testu- eta soinu-interfazeak barne.

5.2. Segurtasun-baldintza orokorrak

Soluzioak segurtasun baldintza orokor hauek beteko ditu:

- Sistema erabiltzeko eta baimendutako pertsonei datuak eta informazioa eskuratzeko mugak jartzea, identifikatzeko, autentifikatzeko, sarbide-eskubideak kudeatzeko eta, hala badagokio, pribilegioak kudeatzeko mekanismoen bidez. Sistemaren arduradunak edozein unetan konfiguratu eta administra ditzake mekanismo horiek. Zehazki, erabiltzaile-gakoen eta konfigura daitezkeen pasahitzen sistema baten bidez edo ziurtagiri elektronikoa erabiliz sartu ahal izango da sisteman.
- Erabiltzaile-profilak ezartzea, hau da, erabiltzaile bakoitzarentzat sistemaren baliabideak, datuak eta aplikazioak erabiltzeko baimenen multzoa eta mailak, eta horiek konfiguratzeko tresna atsegina.
- Eskuragarritasun-bermeak, zerbitzua eta informazioa berreskuratzeko eta eskuratzeko bermeak, babes-kopiak eta egindako transakzioen trazabilitatea. Aztarna-fitxategi bat izango dute, sistemarako sarbideen eta erabiltzailearen ekintza oldarkorrenen berri etengabe emateko, hala nola fitxategiak ezabatzea edo informazio-kopuru handiak ezabatzea. Datuak kontserbatu eta babesteko berme berezi baten ondorioz beharrezkoak diren kasuetan, kontsultarako eta informazioa eskuratzeko auditoriak ere aktibatu ahal izango dira. Kasu guztietan, ikuskapen-fitxategian edo transakzioen trazabilitatean, gutxienez, nork egin duen kontsulta, ezabaketa edo aldaketa, eta prozesuaren eguna eta ordua erregistratu beharko dira.
- Sistema baimenik gabeko manipulazioetatik babestea. Alde horretatik, arreta berezia jarriko da aldez aurretik identifikatzea eskatzen duten web orrietara ezin dela sartu bermatzeko.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

Europar Batasunak finantzatua NextGenerationEU
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO DE POLITICA TERRITORIAL Y MEMORIA DEMOCRÁTICA MINISTERIO PARA LA TRANSFORMACIÓN DIGITAL Y DE LA FUNCIÓN PÚBLICA SECRETARÍA DE ESTADO DE FUNCIÓN PÚBLICA

- Aplikazioa gaizki erabiltzean ahalik eta akats gutxien egitea, defentsa-programazioaren, erabiltzailearentzako pantaila lagungarrien, menu bertikal flotatzaileen, *scroll*-eko leiho-zuhaitzen, laguntza-leiho gainjarrien eta abarren bidez.
- Datuen eta informazioen galeraren prebentzioa bermatuko duten mekanismoak, hau da, osotasunaren bermea.

6. Instalatzeko eta abian jartzeko epeak

Proiektu hau instalatzeko eta abian jartzeko lanak 2024/09/15erako amaituta egon beharko dira.

7. Kontratuaren prezioa

Lizitazio-prezioaren guztizko zenbatekoa 118.329,57 €-koa izango da, dagokion BEZa gehituta.

8. Bermea

Enpresa esleipendunak 2 urtez bermatuko ditu instalatutako materialak, eta 3 hilabetez, egindako instalazioak.

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

Europar Batasunak finantzatua NextGenerationEU
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO DE POLITICA TERRITORIAL Y MEMORIA DEMOCRÁTICA MINISTERIO PARA LA TRANSFORMACIÓN DIGITAL Y DE LA FUNCIÓN PÚBLICA SECRETARÍA DE ESTADO DE FUNCIÓN PÚBLICA

Aurkibidea

1. Testuingurua....1
2. Kontratuaren gaia....1
3. Egungo egoera....2
4. Proiektuaren deskribapena eta irismena....2
5. Kontratuaren beste betekizun batzuk....4
5.1. Hizkuntza-betekizunak....4
5.2. Segurtasun-baldintza orokorrak....4
6. Instalatzeko eta abian jartzeko epeak....5
7. Kontratuaren prezioa....5
8. Bermea....5

Barrenkalea 17, 2.a | 48200 Durango (Bizkaia) – Tel. 946030015 - informatika@durango.eus - www.durango.eus

Europar Batasunak finantzatua NextGenerationEU
Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO DE POLITICA TERRITORIAL Y MEMORIA DEMOCRÁTICA MINISTERIO PARA LA TRANSFORMACIÓN DIGITAL Y DE LA FUNCIÓN PÚBLICA SECRETARÍA DE ESTADO DE FUNCIÓN PÚBLICA

[Jauzi egin euskarazko testura]

[Saltar al índice]

1. Contexto

Esta licitación corresponde al segundo proyecto de un conjunto de dos, presentado a la convocatoria 2022 de las ayudas a EELL para su transformación digital y modernización (C11.I3), y está enmarcado en la línea estratégica 4: Infraestructuras digitales. El artículo 5 de la Orden TER/836/2022 en el apartado d) dedicado a esta línea estratégica (subapartado 2.º iii. de actuaciones subvencionables), contempla las "*infraestructuras físicas y puntos de acceso digital, y la implantación de puntos y de puestos digitales de ayuda al/a la ciudadano/a, que faciliten la automatización y la agilización de los servicios; de sistemas que contribuyan a la modernización de las entidades locales, a través de la mejora del acceso de su personal mediante tarjetas inteligentes; y de infraestructuras que mejoren la eficiencia energética de las sedes*".
Son objetivos estratégicos de este Ayuntamiento, la modernización de los sistemas de información, así como la actualización y mejora en la utilización de los medios tecnológicos. Esta renovación queda enmarcada en esta actualización y mejora.

2. Objeto del contrato

Con la intención de modernizar el acceso a sus sedes, despachos y demás estancias, el Ayuntamiento de Durango pretende contratar el suministro y la instalación de cerraduras electrónicas para las puertas interiores y exteriores de sus edificios, vinculando de esta manera el presente proyecto con el Objetivo 168, Hito 169 del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, de contribución a la consecución de la transformación digital en términos de infraestructuras físicas, lógicas y software.
El sistema de cerraduras electrónicas estará basado en dispositivos lectores, que permiten la apertura de las cerraduras electrónicas, con tarjetas, llaveros y pulseras de proximidad, así como con una app móvil para los entornos *Android* e *IOS*, que interactuarán con el mecanismo de apertura de las puertas, de tal forma que se permita la apertura manual de la puerta al presentar una tarjeta con permiso de acceso autorizado.
Las cerraduras electrónicas serán de tipo *on-line*, es decir, conectadas a la red de datos para monitorizar el estado de la puerta y visualizar en todo momento qué personas acceden por dicha puerta, así como para la actualización inmediata de los permisos de acceso, utilizando para ello el software *ProAccess SPACE* del fabricante SALTO SYSTEMS.
La codificación correspondiente a la nomenclatura Vocabulario Común de Contratos (CPV) de la Comisión Europea es:

- 44521120-5 – Cerraduras de seguridad electrónicas.

3. Situación actual

En la actualidad el Ayuntamiento de Durango ya cuenta con un sistema parcial de puertas con escudos electrónicos, afectando éste a 427 puertas de diferentes edificios, con un total de 1.338 llaves repartidas entre personal y usuarios/as. Con este proyecto se pretende ampliar el sistema *SALTO Space BLUEnet Wireless* a tantas puertas como sea posible, así como migrar instalaciones anteriores con sistema *iButton* al nuevo sistema BlueNet Wireless.

Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 15250327241262445677 **CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

4. Descripción y alcance del proyecto

El Ayuntamiento de Durango cuenta con un total 85 edificaciones susceptibles de incorporar escudos electrónicos en sus puertas. En el presente proyecto se prevé instalar este tipo de cerraduras en los siguientes edificios:

USO	EDIFICACIÓN
Administrativo	Udaletxea
Cultural	San Agustin Kultur Gunea
	Larriztorre
	Etxezarreta Museoa
Deportivo	Arripausueta Kirol Gunea
	Landako I
	Landako II
	Futbol Zelaia
	Tabira kirol gunea
	San Faustoko frontoia
Educación	Euskaltegia
	KZ gunea
Patrimonio Artístico	Kurutze Santu Museoa
Otros	Brigadako biltegia
	Landaederra
	Matxinestarta lokala
	Berbagunea
	Mercado de Abastos
	Cárcavas
	Deposito Agua
	Laubideta

Se pretende seleccionar una empresa con capacidad para suministrar e instalar en las puertas interiores y exteriores de los edificios del Ayuntamiento de Durango, aquellas cerraduras electrónicas que cumplan las especificaciones técnicas mínimas solicitadas en este Pliego de Prescripciones Técnicas.

El actual sistema de cerraduras electrónicas, instaladas en diversos edificios del Ayuntamiento de Durango y sus OOAA, pertenecen a la estructura del sistema SALTO, integrado en el software de última generación Pro Access SQL o HAMS SQL, que emplea la comunicación por radiofrecuencia a 2,4 GHz. Wireless de la nueva generación XS4 de SALTO, encriptada mediante un algoritmo AES de 128 bits, basada en el estándar IEEE 802.15.4.
La ampliación de escudos electrónicos en los edificios indicados anteriormente, es el cometido del presente proyecto.
La empresa adjudicataria deberá aportar la acreditación correspondiente de *Partner* homologado, avalada por el fabricante SALTO, que garantice su capacidad para suministrar, instalar, configurar y realizar la correcta puesta en servicio de los sistemas y software SALTO ofertados para el Ayuntamiento de Durango.

Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 15250327241262445677 **CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

El equipamiento de cerraduras electrónicas a suministrar deberá ser plenamente compatible a nivel funcional, operativo y de gestión con la aplicación de control de accesos existente en el Ayuntamiento de Durango, y deberá poderse gestionar y controlar de forma centralizada, a través de la red de datos *IP*, mediante la aplicación *Salto Pro Access Space* SQL, de la empresa SALTO SYSTEMS y totalmente compatibles con la plataforma XS4 de control de accesos SALTO, creando una red virtual entre las cerraduras (SVN), con diversos tipos de ancho, desde el modelos XS4-40 hasta XS4-67.
El sistema de cerraduras electrónicas estará basado en dispositivos lectores que se acoplarán al mecanismo de apertura de las puertas, de tal forma que se permita la apertura manual de la puerta al presentar una serie de dispositivos homologados con el sistema, con permiso de acceso autorizado.
Los tipos de dispositivos mínimos a utilizar, perfectamente homologados por el sistema, son:

- Tarjeta de proximidad.
- Llavero.
- Pulsera de silicona.
- Pegatina.
- App en móvil (Justin Mobile).

Las cerraduras electrónicas a instalar, deben estar diseñadas para instalarse en todo tipo de puertas (madera, cristal, metálicas, etc.), que lleven cerraduras de embutir, de perfil europeo, incluidas las de perfil metálico, perfil escandinavo, tipo ANSI, como incluso con algunos picaportes tubulares, que cumplan con la normativa de adaptabilidad (DDA).
Las instalaciones de cerraduras electrónicas a implantar en los edificios incluirán los materiales y mano de obra necesarios para su correcto funcionamiento, debiendo intermediar con los gremios que se precisen para otro tipo de actividades complementarias como mecanizado de puertas, instalación de mecanismos de apertura y cierre de puertas, cableado de señalización, alimentación eléctrica, y cuantos elementos sean necesarios para el buen funcionamiento del sistema.
Se detallan en la siguiente tabla el número y las características aproximadas de los elementos a suministrar e instalar en los edificios del Ayuntamiento de Durango mencionados en este mismo apartado:

ELEMENTO	Nº DE UNIDADES
Escudo electrónico Mifare	185
Complemento de escudo electrónico Mifare	24
Cilindro SALTO NEO	51
POE Gateway RF3 EU	59
Licencia SALTO Wireless BLUEnet/SPACE-OPT-0033	201
WR4000 Mifare BLE	35
Control Unit 42XX EU plug	30
Herraje puerta de vidrio bombillo vertical	2
Par de placas y otros complementos y kits	90

No se procederá a valorar la oferta de aquellas proposiciones que ofrezcan equipos que no se ajusten a las prescripciones técnicas especificadas en este apartado 4, resultando así la empresa licitadora excluida de la licitación.

Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 15250327241262445677 **CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

5. Otros requisitos del contrato

5.1. Requisitos lingüísticos

Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6º y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, entre otros, la Normativa municipal de promoción y normalización del uso del euskera del Ayuntamiento de Durango, de 9 de noviembre 2010, y de acuerdo con los planes que tiene el Ayuntamiento para regular su actividad lingüística, como son el Plan de normalización del uso del euskera del Ayuntamiento de Durango 2019-2022, y el Plan de acción para la promoción y el uso del euskera 2019-2022.

En cumplimiento con lo establecido en el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, los requisitos lingüísticos que se recogen en los presentes pliegos de condiciones constituyen una obligación esencial del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, y su incumplimiento puede tener consecuencias idénticas al del resto de condiciones, es decir, la aplicación del sistema sancionador o la resolución del contrato.

Por consiguiente, debido a que este contrato deberá cumplir obligatoriamente el régimen de la doble oficialidad lingüística, la plataforma deberá implementar necesariamente el euskera y el castellano en todos y cada uno de sus módulos, textos de ayuda y otras interfaces.

Por indicación del Acuerdo sobre inserción de requisitos lingüísticos en la ejecución de los contratos administrativos del Ayuntamiento de Durango y de sus Organismos Autónomos, se incluye el siguiente texto: La empresa adjudicataria facilitará en ambas lenguas oficiales los manuales de instrucciones o la documentación de los bienes y productos objeto del contrato, incluidas las interfaces textuales y sonoras de los diferentes software.

5.2. Requisitos generales de seguridad

La solución cumplirá con los siguientes requisitos generales de seguridad:

- Restricción de utilización del sistema y de acceso a los datos e informaciones a las personas autorizadas mediante mecanismos que permitan la identificación, la autenticación, la gestión de derechos de acceso y, en su caso, la gestión de privilegios. El/la responsable del sistema podrá configurar y administrar en cualquier momento los citados mecanismos. En concreto, deberá poder accederse al sistema a través de un sistema de claves de usuario/a y contraseñas configurables o la utilización de certificado electrónico.
- Implantación de perfiles de usuario/a, es decir, el conjunto y niveles de permisos de uso de los recursos, datos y aplicaciones del sistema para cada usuario/a, y una herramienta amigable para su configuración.
- Garantías de disponibilidad, garantías de la recuperación y disponibilidad del servicio y de la información, las copias de salvaguardia y la trazabilidad de las transacciones realizadas. Dispondrán de un fichero de trazas en el que quedará constancia permanente de los accesos al sistema y de las acciones más agresivas del/de la usuario/a, tales como la eliminación de ficheros o el borrado de grandes cantidades de información. En los casos que sean necesarios por una especial garantía de conservación y protección de datos, se deberá poder activar también auditorias de consulta y acceso a la información. En todos los casos, en el fichero de auditoría o trazabilidad de las transacciones se deberá registrar al menos quién ha realizado el proceso de consulta, borrado o modificación, y la fecha y hora del proceso.

Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 15250327241262445677 **CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

- Protección del sistema frente a manipulaciones no autorizadas. En este aspecto, se tendrá especial cuidado en garantizar que no se podrá acceder a páginas *web* que requieren identificación previa.
- Minimizar los errores de mal uso de la aplicación mediante programación defensiva, pantallas amigables para el/la usuario/a, a base de menús verticales flotantes, árbol de ventanas en *scroll*, ventanas de ayuda superpuestas, etc.
- Mecanismos que garanticen la prevención de la pérdida de datos e informaciones, es decir, garantía de integridad.

6. Plazos de instalación y puesta en marcha

Los trabajos de instalación y puesta en marcha del presente proyecto deberán de estar culminados para el 15/09/2024.

7. Precio del contrato

El importe total del precio de licitación será de 118.329,57 € más el IVA correspondiente.

8. Garantía

La empresa adjudicataria garantizará por un periodo de 2 años los materiales instalados, y por un periodo de 3 meses las instalaciones realizadas.

Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 15250327241262445677 **CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

Índice

1. Contexto 7
2. Objeto del contrato 7
3. Situación actual 7
4. Descripción y alcance del proyecto 8
5. Otros requisitos del contrato 10
5.1. Requisitos lingüísticos 10
5.2. Requisitos generales de seguridad 10
6. Plazos de instalación y puesta en marcha 11
7. Precio del contrato 11
8. Garantía 11

Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 15250327241262445677 **CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

Jesus Iriondo Aldana
Informatika eta Komunikazioen arduraduna
Responsable de Informática y
Comunicaciones